

**ORBATZA**

**LIZENZ AGENTIA**

Mariunen sukaldasun

**I**

Mariun (chechu-izotza) = Aza, chekuanak, haurre ! Chechu erosten ! Chechu ia uztas !

Chechili • Chechintzen dit, etxekandarera, urben elizakatzen ditzine ; bainan es da probeteknik, es dit kausitzeta...

Mariun • Eta hi, zeh ozi hiz hor, bi besoak dikiuden ? Nohiko pikapea, ez hiz uztasen ahai ere ?

Koche • Bainaz... Bainaz... Sherkaezten dit !

Mariun • Bai uste zileak (matxinak bat emaitzen dio) zo ! Ikerak sberditzera.

Koche • AX !

Mariun • Aza ! Belhamiko, eta lichte ! Mia hamarrak amzia, batzuk amzia, beharretatik amzia !

Chechili • Ez dit fitadi ikusten, etxekandarera !

Koche • Debara fitadi ez da azyd, hantza !

Mariun • Zegozk & Izutilek ! Txachentako ! Beharreko artea nihauk lezazka mubien azpian ibili, eze adinean ?

Chechili • Bainaz guk... .

Koche • Bainaz guk... .

Mariun • Jatorrak esin har piltsor hutsa inguraturik ! Niata dugueta txikitegiuntzia ?

Chechili • Ez !

Koche • Ez !

Mariun • Zerén beha hago hor, Chechili madarikatua !

Chechili • Johna niz (uztia hartzen du, lurreen itsultzen, eta husten ondarkinen ikertzeko).

Mariun • (kocheri) Eta hi, Koche, hazi et, amiratua ! (chimikatzeari)

Koche • Atx ! chimikatzzen nista ! besoa funditzen datuazu !

Mariun • Alferra, hi ! nagi hutsa (böharrria tiratzen dio)

Koche • Ou ! beharria ! Ou beharria !

Mariun • Ate ! Ema norapait ! Mia hutsak !

Koche • Bon ! Bon ! (bilhatzen, hautsak ihurtzen ditu)

Chechili • Deus ez !

Koche • Deus ez !

Mariun • Nik behar nuen oraino malitur horri ! Jainko maitea ! Bilha zazue, ba !

- Chechili - Orotan cherkatzu dugu !
- Koche - Bethi bezain gibēl izaiteko ! Ez uzte izan bihar artio cherekatzen ariko girela !
- Mariun - Hunen bekokia !... Zer tuk arrazoin tetele hoik ! Mukizca ez bertzea (makil ikaldia). To ! To ! makila hautsiko dauiat sorbalden gainean !
- Koche - Ai ! Ou ! Hi ! Oof ! Hau emazteki gaichtoa !
- Mariun - Joitearen bortchaz, beharbada atchemanen duk.
- II
- Santsin - Hau harramantza ! Ala fe, Garruzeko ferian etchu holako arrabotsik ! Karrikatik ezagun tchu hemengo oihugarraziek !
- Mariun - ah ! Hor zirea, Santsin !
- Santsin - ba, ba hemen nuchu, eder eta fresko, saltsa bezain aphantua, ikusten duchun bezala ! Dena partha eta ichtila duchu chure landa. Nihaur ere lohi puchka bat bilhakatia nuchu, Ilhea lehi, bizarra lohi, eta galtzak buztin-gorri !
- Mariun - Gaichu Santsin, ez da deusik hori !
- Santsin - Ez dela deusik ! Aise ari chira, chu ! Landan bachine !
- Mariun - Bazinaki zer pasatu den sukalde huntan !
- Santsin - (Bazterreri beha) Egia erran, desbitcha ederra duchu banne huntan ! Oro airean ! Hautsak eta ondarkinak zangoen azpian !
- Mariun - Ah ! Bazinaki, Santsin gaichoa !
- Santsin (Aire grīnatsu batekin) Zer gerthatu zauchu ba !
- Chichili eta koche (Elgarrekin) - Etchekandereak galdu du...
- Mariun - Zauzte ichilik, zuek, imbihilak ! Eta horiek oro zeren gatik ? Eltzearen gatik, beltzebuten gatik eta zure galdegi gatik, heien sarestatzen ari bainintzen, gichagaizoa !
- Santsin - Ez tichut porrakik konprenitzen !
- Chichili - Zu bakean zinen Belegorriko landan. Bazinaki zer bizia egin man dugun hemen ?
- Santsin - Errazie ba, azkenean, nik ere jakin dezadan !
- Mariun - Ai, ei, ama !
- Chechili - Etchekandarea kadiran jartzen da eta zure galtzak galdegiten dauzkit behar dautzula pedachu bat ezarri ipurdian... Bizpahiru pondu ez zituen egin...
- Koche - Harra nun gatuak jausi egiten duen mahaij horren gainera, sūdurra eltzeari, eta pusako batez estalgia surdikitzen du...
- Chechili - Mariun chutitzen da, oihuca : "Hoa hortik, Beltzebut !

- 17/2/22
- Koche - Zure galzak exortzen dira, makila airez-aire igortzen dio, gatuak jauzi.
- Chechili - Eta eltzea uzkaitzen da porruak alde guzietarat darizkola !
- Mariun - Ba, eta geroztik ez dugu gehiago ikusi !
- Santsin - Zer ez ikusi ? Gata ?
- Chechili - Ez !
- Santsin - Eltzea ?
- Koche - Ez !
- Santsin - Ene galzak ?
- Chechili eta Koche - Ez, orratza !
- Santsin - Nungo orratza ?
- Mariun - Ene orratz ederra, Santsin gaichoa ! Ene orratza luze, orrate fina. Ene altzeiruzko orratz-maitea !
- Santsin - Orratza ! Hoinbertze kalapita orratz batentzat ? Oihu nigar, marraska ! Eta patata churikin hoik sukaldearen erdian... orratz batentzat ?
- Mariun (en colère) - Zer orratz batentzat ? Miserablea ! ez dakizu ba zonbat gosta diren ?
- Santsin - Bo ! Paketak zonbat egiten tichi ?
- Chechili - Bortz libera.
- Chechili - Borts libera ! Beha zazu ba !
- Mariun - Paketean ez dira hamar. baizik.
- Santsin - Halere ! Duzun fortunarekin...
- Mariun - Fortuna ? Zer derasazu ? Pollita litake ene fortuna orraterak urean barna igortzen banitu ?
- Santsin - Alo ! Alo ! Mariun ! Orratz baten makurrak ez ahal zitu tturinduko ?
- Mariun - Horra zer behar den aditu, hazten ditugun jenden ganik ! Segur niz orotan kînda eta konda zabiltzala Mariun beraitsa dela ; dirua metaka biltzen duela ; murru-ziloetan ere gordetzen duela zernahi urhe, zilhar eta paper urdin. Zuzirela kausa, choinak jinek zaizkit eta hilen nute.
- Santsin - Zaude ichilik, emaztekia. Etchit nik deus holakorik erraiten... Bainan orratz batentzat, zinez !
- Mariun - Horra zer den alargun izaitea ! Ah ! ene Pattin zenak ikussten banu !
- Santsin - Har-zazu bertze orratz bat paketean eta emazu bakera.

- Mariun - Bertze bat !... Bertze bat... Badakizu zer mintzo ziren ?  
 Pite fini litake paketa, hats hortan enplegatzen baginitu ?
- Santsin  
Mariun  
Santsin  
Mariun  
Santsin  
Mariun
- Kasu gehiago eginen duchu berriari.
  - Chaharra arras eskukoa zuen.
  - Beinan geldua denaz geroz !
  - Cherka zazu, kausituko dizu.
  - Hori ez tohuene lana ! Zertako dituzu muthila eta neskatoa ?
  - Zozo hauk deusetako ez dira. Cherka zazu, Santsin gaichoa !
  - Zu gizon seriosa zira, hainitz ikusia eta hainitz ikasia.
  - Ene intresak atchiki nahi dituzu arantz ?
  - Hogoita-hamar urthe hantxe churetzat lansen ari bainiz, ez ahal duzu dudarik... Bainan behin behar nukechi afaldu.
- Santsin  
Mariun  
Chechili  
Koche  
Santsin  
Chechili  
Koche  
Santsin  
Koche  
Chechili  
Santsin  
Koche  
Chechili  
Mariun  
Santsin (hasarre)
- Afaldu ?
  - Afaldu ?
  - Afaldu ?
  - Zer ba ! Bethe zadachu azita, Chechili !
  - Bainan... .
  - Ez da... .
  - Zer ?
  - Ez dela afaitekarik ?
  - Eltzea uskaili da
  - Ez afaitekarik ?
  - Errana dautzugu.
  - Gatua dela kausa.
  - Ba preseski, orduan galdu baitutene orratza !
  - Orratz eta narrata ! Orratz madarikatu horren gatik afaldu gabe egon behar dut ba ?
- Chechili  
Koche  
Mariun  
Santsin  
Mariun  
Santsin  
Koche  
Mariun
- Gu ere bai
  - Gu ere bai.
  - Ni ere bai
  - Ja, ja, ja, ja ! Soberakina duzu azkenian ! Goizetik arras idia bezala lanian har, lehertia eta gero....
  - Ogi paska handi bat izanen duzu, gizona ! Chechili, emak ogi paska handiño bat.
  - Ogia ! ogia ! Hauche dichiguafari ederra !
  - Ez gira ba garizuman !
  - Kachu min har, haurra, kanita horrekin. Emadan ogia ; ni haurt pikatuto dist. Orizu, ogi kantail eder hau guretzat Santsin !

.../...

Santsin (Zinkurinaz) - Hun !

Mariun

- Hiretsat, Chechili ! Hiretsat Koche !

Koche

- Cherre meheño hau bakharrak ?

Mariun

- Beha zozue horri ? Kukusca bezanbat ez izaki-eta, otsoak  
besenbat jan nahi !

Koche

- Preseski, handitzeko

Mariun

- Ba, hi bethi arrazinka ! Nik hasteko, ez dut batera janen !  
Estomaka arrunt bildua dut, ez bainezake ahamen bat ere  
irets.

Koche

- Estakuru ederra, bertzen gose atchikitzea.

Mariun

- (Samurtuz) Ene intresak begiratu nahi bazinituzte, ni  
bezain penatuak eta trichtatuak behar zintezkete.

Koche

- Alabainan, ogiak, dolu egiten !

Mariun

- Hi, ago ichilik, hire onetan. Aditu duk.

Koche

- Gerrena bezain mehea niz etche huntan ! Sobera chuhurra  
eta zikina zira, akenakots !

Mariun

- (hats-bahitua) Zer ? Zer ?... Kakazu harren ahotik zer  
aditu behar muen !...(palosak emaiten dioska) To ! To !  
irakatsiko daniat etchekandereeanen errespetua !

Koche

- Oh ! Ez hazi nahi eta oraino joiten ! Nun da justizia ?

Mariun

- Are ! Habil hemendik. Ez hut gehiago ikusi nahi, alferra  
ez bertzea !

Koche

- Hori duzuia ! Jainkoak ez zitu benedikatuko.

Mariun

- (makila hartuz) Errabiarazi nahi nuka ?

Koche

- (nigarrez ihes eginez) Hi, hi, hi... hil nahi nu (eta  
atheratzeko kinkan aphalago) atso tzarra, oigaina izanen  
duh.

### III

Mariun

- Egundaiño !.... Urdia !

Santsin

- Hauche dichigu egun ederra ! Bai, egun ederra ! Zer asea  
egin dutan haatik chure ogi puskarekin ! Brien bisaia !

Mariun

- Cherka zazu ba pochi bat, Santsin gaisoa. Segur niz zuk  
atxemanen dautazula !

Santsin

- Ja, ja, ja... aseoha nuchu orratz demonio hartaz... Es-  
tomaka korropilatzen dautachu !

Mariun

- Ea, Santsin, utz-azu mutur salda hori !

Santsin

- Zer nahi duchu bilha desadan ! Ilduntze huntan ez duzu  
deus ere ikusten.

Mariun

- Utz dezagun bada orratza bere chantzean. Bihar goizean,  
charkatuko dum, Chechili ?

- Chechili - Bai, etchekanderia.
- Mariun - (Othoitz egiten du) San Antonio Padukoa, entzun-azuene othoitz ! Ene orratza atchemaiten badut... ene orratz ederra... hitz emaiten dautzut tortxo handi bat, eta erretzerat utziko dutala bururaino !
- Bisgarren akerkia
- Karrikan. Alde batetik Pegarbaita. Bertzetik Chauchunenea
- I
- Koche -(bakarrik)(bere ogi-charra jaten dualarik) Ah ! sorgin sa harra, ja mun, zimikatu mun, beharriak tiratu dauzkidan. Hitz eta promes daunat ez hatala huts eginen, parada dute tenean. Aditu nahi ez duenak ezkilarik ez dezala tira koldarik... Afariteko tenoreak segurik aspaldi jo du ene trizen Debrintchoa gose niz... Ea, beharko bat Gregoriaren sukaldeari !
- (Leihotik so egiten du). Mahainen jarri da gaiocha afari ontze baten aintzinean ! Hou ! Zopa horren usainari ! Alta chingarrak ere itchura ona du ! Iza nauke !
- (Leihotik joka) Gregoria ! Gregoria ! Jainkoak dagizula gau on !
- Gregoria (barnetik) - Hi hiza, Koche ! Gau on !
- Koche - Egizu afari, Gregoria !
- Gregoria - Gauza bessa, puttill !
- Koche - Ha, nik laburra dut laburra, gaurko afaria !
- Gregoria - (leihorat heldu da, ahoa betherik). Hiru afaria ? Zer ? Ishaal duk ogi-cherra hori ?
- Koche - Ba, maluruski, idorrik eta hutsik, deus jakinik gabe !
- Gregoria - Giza-gaizoa ! Chingar chaflagio bat emanen dauist gainean ezartzeko.
- Koche - Hori haatik !... Bai plazer egin zinezaket !
- Gregoria - Bainan, harritzen nuk ! Liariunek ez hobeki hasten ?
- Koche - Zer nahuzu ! Bain pobre da !
- Gregoria - Pobre ? Mariun ? Behauk hortik ! Irriz ustel-arazi nahi nuk !
- Koche - Ba, berri-berrikiten oile churia ebetsi diote, egun guzien erruten zuen bakharra !
- Gregoria - Oile churia ebetsi ?
- Koche - Badakisu nortaz jeloastua den ?
- Gregoria - Nortaz ?
- Koche - Ez dusu nehori salatuko, erraiten badentsut ?

- Gregoria - Zertako nahi duk salatzea ? Hork ebatsi dicke ?  
Koche - Haren arabera... bainan othoi ez duzu saltsarik nahasiko  
Gregoria - Zer apentzia ! Zer joan zait eni ?  
Koche - Horra... erraiten du zuk egin diozila !  
Gregoria - Zer ?  
Koche - Zuk... edo zure neskatoak !  
Gregoria - (ez jakinez ea irri egin behar duen ala hasarretu). Espron  
ari hiz, araiz ?  
Koche - Ez, ez, zin-zinez ! Chechilik segurtatu dio bazkariteko  
erre-arazi duzula.  
Gregoria - Jesus ! Zer dute ichorio hori berriz ere !  
Koche - Ba eta hechurak ere ezagutu omen ditu zuen ongarriaren  
gainean !  
Gregoria - (furian jartzen da). Hoi haatik ! Nik hari oiloa ebatsi !  
Koche (Kontent) Soberakina da ! Pozein tzarra ! Ez diat kitorik utziko !  
Etzitela samir, Gregoria ! Etzazula erran deus ere beda-  
kizula.  
Gregoria - Jin bedi jeusen aipatzerat. Hitz dauiat irri eginen dugula.  
Koche - Bainan etzozula zuk lehenik alpha ! Ez nezazula eman barne,  
Gregoria !  
Gregoria - Zer kopeta ! Ikusika du...  
Koche - Ez dut nik deus hobenik !  
Gregoria - Tantiruri, oru elgar iduri. Habil haren ganat, ergel alaene  
Koche - Hoi haatik !... Abisatzen situt, eta gero...  
Gregoria - Errok chehetasunak nahi baditu, haren zerbitzuko nizela he-  
men ! Gau on ! (leihoa hesten dio sudurrerat)  
Koche - Hau ichorioa ! Ene falta dea ? Eta chingarría ? Eta zopa ?  
Huni ere mendekatu behar nitzaio !  
(Mariunen etcherat biruz doa ; etchekandarea etheratzen da hainbertze-  
narekin).

## II

- Mariun - Norat joana hintzen ? Zer dük ala gaua kampaean pasatu  
nahi ?  
Koche - Etchekandarea...  
Mariun - Ea, hemendik oherat fitechko, ez baduk nahi nik beharri-  
tik laguntzea....  
Koche - Ez ! Adi nezazu, Mariun ! Badakit nun den zure orratza.  
Mariun - Zer ! Badakikala nun den orratza ?

.../...

- Koche - Bai zerbait gogoratu zait, arrunt akantzia nuena...
- Mariun - Zerbait ? Errak bada fite !
- Koche - Ochtian, oherka ari ginekarik...
- Mariun - Eta ?...
- Koche - Sukalde zolan zinen... Chechiliak... Athera buruz itzuli naiz... Bet-betan begiak alchatzen ditut eta ikusten dut Gregoria pasatzen...
- Mariun - Gregoria ?
- Koche - Niementoa ez dut kasu egin, bainan orai untsa pentsatuta... Bai ukurtu zen hola eta fricht chutitu.... Zerbait bildu balu bezala atze aintzinean.
- Mariun - Zerbait bildu ?
- Koche - Ba, eta hola egin du... Nik ez ikusteko.
- Mariun - Hik ez ikusteko ?
- Koche - Eta badakisu zerk eman dautan gogoari ?
- Mariun - Zerk ?
- Koche - Oraintxet, haren aintzinean pasatzean, josten ari baitzen argi-pean... Haren erhien artean ikusi dit altzeiruzko orratza luze; mehe, dirdiratsu bat...
- Mariun - Ene orratza alaintsot !
- Chechili - Zure orratza !
- Santsin - (Hurbildu eta) Etchu beraz galdua ?
- Mariun - Ez galdua ? Ez galdua, bainan ebatsia !
- Santsin - Bederen badakisu nun den !
- Mariun - Harek eni orratza ebatsi ! ! !
- Chechili - Oh !
- Mariun - Ez niz estonatzen... Aspaldian ervana nuen gmazte horrek ez duela fitsik balio !
- Santsin - Ba, halere zure ithurriko laguna zen : zonbait oren eman ditutzu harekin kalakan.
- Mariun - Kalakan, kalakan ! Ez du horrek erron nahi jendea estimatzeko dela... Ikusten duzu orai sertas den kapable.
- Santsin - Irreposeki othoi ? Muntsean ser dakizu ? Orratza harena balitz ?
- Mariun - Harena ? Ba aise !... Ez du ez harek holako erratzik. Tipi horrek berehala exiguta du. Jujestaratz eresun behar dut. Debrum ez bedu...
- Koche - Jujestaratz, Etchekandarea ? Bainan jujekin badakisuia zer despendioak izanen ditutsun ? Ez othe zinuke hobe hari berari galdatzea ?

Mariun

- Arrazoin duk, Koche. Aldi hantan arrazoin duk. Goazen !  
Segi, zuek, Berreak behar ditti aditu, !
- Kasu haatik trompe !
- Ez nais aigerat ari ! Goazen aintzina ;
- (Bere buruarekin) Hum ! Uste dut orai ez dutehaene beharrik ! Urrundik ikusiko dut ! (Gordetzen da)

III

Mariun, Santein, Chechili (gibelotxa) Koche (gurderik) eta Gregoria

Mariun

- Gregoria ! Gregoria !

Gregoria

- (Leihorat) Nor da hor ?

Mariun

- Gregoria, turka nadazu othoi betehala, plaser beduzu, ene ontasuna ! Negoi urthe hantan suno baigira, ez deutxut nik uliettita bat ebetsi. Turka nadazu eta geha balean bisitzeko :

Gregoria

- Zer dun, dekru nahasia, hunat jiteko hire ichteriorekin ! Iñuthila ere sertako elkarri dun hunat, ala ni etxean eho nahiz ?...

Mariun

- Zer ditun oihu hoik ! Ez nun hein aise izituko ez ! Ene ontasuna nahi dinat, eta lizaten dinat ! Uste dun zer natiako libre hizala ? Ikusiko dun !

Gregoria

- Hail antzara ferratzerat, hire ontasunarekin ! Hi eta hire jende piltzarra ! Kepeta badun erraiteko choi bat nizela ? Ghajna ni ? Motsi doamat nik ?

Mariun

- Jakizue ez nizela aigerat mintzo, frogak baditut, froganak oraitze ! Es athesis, ebetsi dantza, hai zeha aintzinean !

Gregoria

- Errebuskin hiru frogak, erakuts !

Mariun

- Baditinet eta aski dun, aditu dun !

Gregoria

- Aise mintzo hiz ! Are, ore, esaltegi beharrak, sorgin Zaharra !

Mariun

- Nor esaltegi ? Es hiz hi segurik kontzentziaren trebukaturik behastopatu !

Gregoria

- Beha zozue salamandrina horri !

Mariun

- Ematzarra, neska tsarga !

Gregoria

- Sar hadi hire sorritegian ! Bertzenaz !...

Mariun

- Hi, emartera behis, athera hadi hiru simitskaiolatik. Bedurtia !

Gregoria

- Beldur mi ? Beldur mi ?

Mariun

- Haugi be luhiak bat, santsana ez bertzea !

- Gregoria - (atheratuz) Huna nun nizan, suge-bipera !
- Mariun - Urdesa, ez zain oren-laurden hau behin ere ahantziko !
- Gregoria - **Zer uste dun, parasol hautsia ! Bi ukumiloz hogoita bortz**  
puska egiten hut !
- Mariun - Ikusiko dun, arno-kuia !
- Chechili - Emozu, Mariun ! Jo, ausik, aztaparka-zazu ! Matelak marka,  
Begiak errotik egin !
- Gregoria - Hori duna ? No, atcheman, kaheka tzarra ! Ikasan hire mihi  
zikinaren atchikitzen. No ! kaska hau ikasteko zer den  
lehen auzoen errespetua !
- Santsin - Hep ! Zer da hau ? Ez dut deusik ikusten nik ! Bon maitia !  
Gure Mariun lurrean !
- Mariun - (deika) Santsin !
- Santsin - Chuti hortik, Mariun ! Hep là ! Norat joan da basa-astanha  
heri ? Nik matatuko dut.
- Gregoria - Hik ? Debruuen zizari-pikatzale, iphurdi airatua !
- Santsin - (Mariuni) Atchematzu gibeletik !
- Mariun - **No, frikuna, atcheman !**
- Gregoria - Ah ! bipia, hi ! Ene bizkarrean jostatu nahi hiz ? No,  
hire penarentzat ! Zangarretan !
- Mariun - (Errotzen da) Hu !
- Gregoria - Kontent hiza ? Ez badun aski, ez pasa gabe ; hire zerbit-  
zuko nun ! Gau on, chori-mamua ! (Etchean sartzen da)
- Chechili - Hep, Mariun !
- Santsin - Nun zira ?
- Mariun - (zinkurinaz) hemen lurrean ! lagun nezazu, chuti nadin !
- Chechili - Jainko maitea !
- Santsin - Ea ! chuti !
- Mariun - Zure gainean kondatzen nuen, Santsin !
- Santsin - Hoin fite pasatu duchu ! Ilhunitzen ere hasia... Bainan  
**ikusiko duzu...** Bon maitea ! Bere etchako bortha zerraturik  
ihes egin dichu, den bezalakoak !
- Mariun - Emadazue besca, eta goazen etcherat, Hu !
- Chechili - Orduan zure orratza galdua da !
- Mariun - Galdua ? hitz datmat ezetz. Mera gizon puska on bat badu-  
gu, ene senhar zenaren anai-erdia. Haren bilha igorriko  
dut. (oihuka) Koche !
- Chechili - Nun da ? Koche !

.../...

- Santsin - Itzali da ? KOche ?  
Koche - (herabe bezala heldu) Deitzen nuzu ?  
Mariun - Bai, nun hintzen ?  
Koche - Eta... eta... lapinen hesterat...  
Mariun - Hail meraren ganat, berehala kiteko.  
Koche - **Meraren ganat ? !** Enore huntan ?  
Mariun - Errok ikusi behar dutala, egiteko biziki serios batenzat.  
Koche - Bere etchean izanen dea ?  
Mariun - **Segurki baietz, tenore huntan finitzen ohi du bere afaria**  
Koche - Eta... nahiko duia desarranjatu ?  
Mariun - Oh ! habil harekin, Chechili ! Tonto horrek ez dauku bakharrik deus onik eginen !  
Koche - Ez, ez ! Bakarrik johan niz !  
Mariun - Zoazte, biak... eta zagozte ichilkik ! Badut aski erranik !  
Chechili - Haugi, Koche ! (badka)  
Koche - Af, af ! Salta hau ez othe den mintzen hasia (badoa)  
Mariun - Sar giten, Santsin ! (Santsin eta biak etchean sartzen dira).

#### HIZUGARREN AGARKIA

Mariunen etchean

- Santsin - Holache ! Sar zite pollikino, etchekanderia.  
Mariun - Ai ! Doi-doia banabila ! Uste dit sahets-ezur guziak hautsi dauzkidan !  
Santsin - Jar zite, alki hortan !  
Mariun - Bai... (jarri nahi da) Hu ! Oh ! af, af, errainak, zangoak ! Deus ezin plega !  
Santsin - Ea, entsea zite !  
Mariun - Ez, ez naiz jarriko ! Jar banindadi ez ninditake gehiago chuti !  
Santsin - Ohea behar duzu zuk ! Chauri. Gambaralat lagunduko zituztene  
Mariun - Bai ohea !... Ez da bertze erre mediorik. Haistik behar diren jaun mera mintzatu lehenik !  
Santsin - Ba, bainan... nola egonen zira haren beha ?  
Mariun - (alkiaren bizkarrari bermatuz) Chutik goaitatutko dut, Santsin, bai chutik !  
Santsin - **Izanen duzuia aski indar ?**  
Mariun - (handi-handia) Mendekioak sustengatzen nu ! Herrak hazi-ko nu !

- Mariun dea hala ? Orai gauza klarki badakikechu, Jaun Mera !
- Mera - Bai, denak hala dira, Jaun Mera ! Ez denetz haatik sobe-rachko, jendea ebats eta gero berriz hilka jo !
- Mariun - Ba, biziki sobera segur eta halere ! Bainan afera hunek itzalño zonbait baditu...
- Mera - Itzalak ? Iguskia bezain argia da.
- Chechili - Ez dut erraiteñ... bainan.... halere.... Gregoria behar dugú mintzatu (Chechili-ri) Zcazi haren bilha, haur maitea.
- Berehala, Jaun Mera ! (atheratzen da)

### III

- Mera - Mariun, segur zireia erraiten duzunaz ? Ez da gauza ttipia norbaiten akusatzea, eta....
- Mariun - Oh ! Jaun Mera ! harritzen nuzu ! zer zaitzu bada ala buru arin hetarik naizela, ni ? Fitsik jakin gabe, burua bero-turik, mintzaten dren hetarik ! Adina badit, esperientzia badut. Ez ahal duzuene fede onaz dudatzen ?
- Mera - Ez, ez ! Mariun... Bakarrik...
- Mariun - Ezagutzen nuzi, Jaun Mera, ene senhar zena ezagutzen zinuen Ez gira jende zuzen eta chuchenak gure familian ?
- Mera - Baietzi, bai... ez dut erraiteñ....
- Mariun - Ah ! Jaun Mera, penatzen nuzu ! Ez muen holakorik uste zure partetik ?
- Mera - Eia, Eia, ez zitela samur ! Orizu, horra gure Gregoria !
- Mariun - Zainak biltzen zaizkit hora ikustean ! Ez kasurik egin harren ichtorioeri, Jaun Mera ! Emazte mota horiek oro, titulikatzaileak dira !

### IV

- Gregoria - Jainkoak dagizula gau on Jaun Mera !
- Mera - Bai eta zuri ere parte on, Gregoria !
- Mariun - (ahapeka bezala) Lausengaria !
- Mera - Gregoria, afera ttipi bat nahi nuke argitu !
- Gregoria - Bai badakit akusatu nu ! Suge-bipera horrek, ziminosa horrek choina nizela errant daut !
- Mera - Barache, barache, Ez zitela hola asalda !
- Mariun - Aditu duzu ? Zer mihi garbia ?
- Mera - Hasarreak ez du onik. Mintza giten cztiki !
- Gregoria - Gainditua niz... Jaun Mera !
- Mera - Eia, eia, frogatuzken gauzak erran ditzagun...
- Gregoria - Frogatuzken gauzak ? Huna bat : eguerditan aratchekia jan dut.

.../...

- Mera - Zure dretchoa zen, bainan ez du horrek deus ikustekorik gure egiteko hantan.
- Gregoria - Ez duela ikustekorik ?
- Mariun (ahapeka) - Burutik badu !
- Gregoria - Ene ondarkin guziak miatzen ahal ditutzue : oihasko hechur bakhar bat atzemaiten baduzue...
- Mera - Ez dugu jakitearen beharrik zer duzun jaten edo edaten...
- Gregoria - Barkatu ! barkatu ! (Chechili erakutsiz) Chechili chirtchil horrek behar du hemen aithortu denem aintzinean, ene kontra erran duen gezurra !
- Chechili - Oh !
- Mera - Heri bertzalde duzu... Zeren josten ari izan zira arratzalde hantan ?
- Gregoria - Josten ? Zar ? Josten ?
- Mera - Bai, emaztu arrapostua.
- Gregoria - Aithor dautzut galde horrek estonatzen nuela.
- Mariun - Ikusten duzu, Jaun Mera, ez du ihardetsi nahi.
- Mera - Estona ala mestona, emazu othoi arrapostua.
- Gregoria - Egun ez dut deus ere josi. Ez dut sekulan josten. Ez dut sofrizten ahal joesturan artzea. Ene linja kamporat igortzen dit sarestatzerat.
- Mariun -(ahapeka) Abilki mintzo da !
- Mera - Norbeitek erran du bada ikusi zaituela.
- Gregoria - Nor era bedita, ertzozu ene partez goraintzi eta amets egin duela. Utz ditsagan pegesa horiek. Huna juna niz frogatu nahiz ez dutala ebatsi.
- Mera - Preseski...
- Gregoria - Har astu argi bat, zeazti Mariunen oihotegirat. Haren oilechuria han da.
- Mariun - Eas oilechuria ? Behar ere ?
- Gregoria - Bai, nihausk ikusia dut. Horrek erran nahiz du gezurra pentsatu dutela ene fama zikindu nahiz.
- Mera - Eta, sia, utz desagun ichterio hori.
- Mariun - Zer dorasam ? Eta oilechuria es du zogatzet es dantza eta ene orretea hartzu !
- Gregoria - Har astu argi bat, zeazti Mariunen oihotegirat.
- Mera - Neskak akort behar zertza diusuen euskarria : Orratz betez deitu nate hizkot.
- Mariun - Ehatxi, deitatz gure...
- Gregoria - Norik ?

.../...

- Mariun - Zuk.
- Gregoria - Nik ? Orratza ebatsi ? Oiloa ez zena aski ?
- Mariun - Zer oilo ?
- Gregoria - Nik ebatsi dantzulakoa !
- Mariun - Nork akusatu zaitu ?
- Gregoria - Zuk !
- Mariun - Nik ? Ez dut sekulan oilorik aipatu ere.
- Mera - Eia, eia, Iumbait izan behar da nahaspildura zerbait. Nun-dik sorktu da oilo ichioria hori ?
- Gregoria - Koche, haren muthil ttipiak parte egin daut medisentzia hortaz.
- Koche (bere chokoan) - Ai !
- Mariun - Kochek ?
- Mera - Eta nork eman zantzen zuri segurtamena Gregoriak orratza hartu zautzula ?
- Mariun - Eta... Kochek !
- Mera - Oh ! oh !
- Koche -(bere burua gordez) Ai, ai !
- Mera - Nun da Koche hari ?
- Mariun - Koche, haugi hunat !
- Koche - eta... barkatu... Deitzen nazu ? Lo nindagon !
- Mariun - Lo ! Iratzartuke hugu, aho tzarra !
- Mera - Hurbil zaite, Koche ! Aithor aitzu zure gezurrak.
- Mariun - Eta hitz dauiat pekatuko ditukala !
- Mera - Eia, eia, errak egia, hizan bezalako frikuna !
- Koche - Horra, jaun mera... Hala da... Baditake gauza batzu erran ditudan... Noiz nahi erreberiak baditut.
- Mariun - He ? Zer ?
- Mera (irriz) - Erreberiak !
- Koche - Ba, jaun mera ! ahuleziak egiten daut ez bainiz untsa hazia...
- Mariun - Hunen kopeta !...
- Mera - Ez untsa hazia ? Bainam... hire sehi lagunak ez dira ba pleinitzen !
- Santsin - Ez pleinitzen... ez pleinitzen... baditake gu ez ; gure estomaka da pleinitzen...
- Mera - hum !
- Mariun - Bon ! bon ! Aldi hunkako barkatzen diot : onegia naizelakotz, funtsean !

.../...